

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Barkos Lehendakariak Foruzaingo "integral, heldu, prestatu eta gizartera irekitakoaren" alde Gobernuak egindako apustua azpimarratu du

Foruzaingoaren Eguneko ekitaldi nagusian 34 sari eta errekonozimendu banatu zaizkie erakunde eta agenteei

Larunbata, 2018.eko otsailak 24

Nafarroako Lehendakariak, Uxue Barkosek, Foruzaingoaren Eguneko ekitaldi nagusia zuzendu du gaur goizean, eta, bertan, Gobernua Foruzaingo "oso, heldu, gizartera irekitako, prestatu eta beti herritarren zerbitzura izateko" egiten ari den apustua nabarmendu du. Horretarako, antolaketa-eredu berriak sustatzen ari da, bitarteko materialetan eta instalazioetan inbertsioak egiten eta eskumen berriak hartu ahal izateko plantilla gehitzen.



Nafarroako Lehendakariak, Uxue Barkosek.

1928. urtean, duela laurogeita hamar urte, Errepideetako Polizia izenarekin sortu zen, eta ospakizunak bat egingo du aurten urtemuga horrekin. Herri Administrazioaren Nafarroako Institutuko Isabeldar klaustroan, Iruñean, egindako ekitaldian zehar, agenteen, pertsonen eta erakunde kolaboratzaileen lana saritu da, eta zerbitzu gorenen 11 medaila, ohorezko 9 metopa eta beste 14 sari publiko banatu dituzte. Nafarroako Lehendakariarekin batera, bertan izan dira Nafarroako Parlamentuko lehendakaria, Ainhoa Aznarez; Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilaria, María José Beaumont; Barneko Zuzendari Nagusia, Agustín Gastaminza; eta Foruzaingoaren burua, Torcuato Muñoz.

Lehendakariaren hitzak

Hitzaldian zehar, Lehendakariak ziurtatu du Foruzaingoak "balorazio-maila altua duela herritarren artean, eta ez soilik gure gizartean gizarteratuta dagoelako, baizik eta jarduera profesionalarengatik ere bai". Hori horrela dela esan daiteke Nafarroan aurkezten diren salaketen eta ofiziosko jarduteen ia %40a Foruzaingolari zuzentzen zaizkiolako, "eta segurtasun publikoaren arloan lehen erreferentea bezala finkatzen jarraitzen du", adierazi du.

Dena den, baita ere onartu du Foruzaingoaren erabateko zabaltzea "moteltzen eta zailtzen" duten gabeziak izan badirela. "Foruzaingoaren garapena gure Komunitatean gerta daitezkeen segurtasun-gorabehera gehienak, denak ez bada ere, konpontzeko gai den erakunde integral bat bezala ulertu behar da", azaldu du Lehendakariak.

Ildo horretan, Gobernuak Foruzaingoaren alde egiten ari den apustuaren barnean zer-nolako urratsak ematen ari den azaldu du. Tartean, Polizien Foru Legearen proiektua aipatu du, Parlamentuan azkenean onartu gabe geratutakoa. Horren inguruan ondorengoa esan du: "beharbada ez dugu jakin gure apustuaren helburua helarazten". Baina, era berean, Foruzaingoaren Plan Zuzentzailea aipatu du; "horrek poliziaren eredu berria ekarriko du datozen urteei begira, jarraitu beharreko bidea definituaz, eta, garrantzitsuenak, gure Komunitateko eredu zehaztuaz", adierazi du.

Material teknikoa, ibilgailuak eta jantziak berritzeko aurrekontuan egindako ahalegina aipatu ondoren, Barneko Zuzendaritza Nagusiaren zerbitzu guztiak batera hartzeko instalazio berriak sortzeko proiektua aipatu du, orain sakabanatuta baitaude Beloson, Beriainen eta Kordobillan. Instalazio horiek, adierazi duenez, Aranguren-Sankinen koka daitezke.

Azkenik, gogoratu du, Hitzarmen Ekonomikoa eguneratzeari esker, plantilla handitu egin dela (1.200 agente); beraz, "horrek Estatuarekiko elkarrizketak errazten eta ahalbideratzen ditu eskumen berriak hartzeko edo Estatuko Segurtasun Indarrekin eta Kidegoekin beste batzuk jorrazteko koordinazioa berregokitzeko.

Artatutako 12.000 salaketa penal baino gehiago

Bestalde, Foruzaingoaren buruak, Torcuato Muñozek, azken urtean burututako ekintzak nabarmendu ditu. 2017. urtean, 12.461 salaketa penal jaso dituzte. 1.471 pertsona atxilotu zituzten, eta horietatik 272 emakumeen aurkako indarkeriarengatik izan ziren. Ezbehar-tasari dagokionez, 2.985 trafiko-istripu artatu zituzten, baina datu positiboa da hiriarteko bideetan hildako gutxiago izan zirela.

Halaber, informazioa emateko jarduera desberdinak egin dira. Esate baterako, Bide Hezkuntzako taldeak 813 ikastaro eman ditu, eta Nafarroa osoko 21.000 ikaslerengana heldu da; delitu informatikoen taldeak, berriz, Interneteko eta sare sozialetako segurtasunari buruzko 145 ekintzatan parte hartu du; horrez gain, drogen eta gazteriararen inguruko 46 ekintza osatu dira, 1.770 neraberi eskaintako hitzaldi espezifikoeekin.

Orobat, Torcuato Muñozek nabarmendu du Mossos d'Esquadra, Ertzaintza eta Polizia Nazionalarekin egindako lankidetzak; hain zuzen ere, gizakien salerosketan aritzen ziren talde kriminal bana desartikulatu dituzte, jabetzaren kontrako eta drogen trafikoko delituak konpontzearekin batera. Azkenik, Foruzaingoaren buruak Tokiko Polizia ezberdinekin egindako elkarlana azpimarratu du: "hainbat hitzarmen sinatu dira, eta, horri esker, informazioaren tratamendua eta ezagutza asko hobetu da", nabarmendu du.

Sariak

Gaur goizean egindako ekitaldi nagusian, zerbitzu gorenaren medailak jaso dituzte honako hauek: María Boedo Escribano, Aozko Lehen Auzialdiko eta I. Instrukzioko Epaitegiko magistratu-epaile titularra; Valentín Velasco Carrasco, Nafarroako Foru Komunitatean Gobernuaren Delegazioko idazkari nagusia; Josu Bujanda Zaldúa, Herritarrak Babesteko Ertzaintzaren Dibisioko burua; Robert Alexandre Rodríguez Díaz, sargent cap de la Unitat Central de Bandes Criminales de Los Mossos D'Esquadra; eta polizia-kidego ezberdinetako zazpi agente.

Foruzaingoaren ohorezko bederatzi metopa honako hauei eman zaizkie: David Jaúregui Goñi, Etxauriko Udaletxeko langilea, pabiloi industrialetan hainbat lapurreta egindako banda antolatua atxilotzen



Foruzaingoaren Eguneko.

laguntzeagatik; Saray Domínguez García, Nafarroako Estatistika Institutuko Azpiegitura Estatistikoaren Ataleko soziologoa, Foruzaingoaren 2016-2020 Plan Zuzentzailerako egindako ekarpenengatik; San Adriango Adin Nagusikoen Egoitzako langileak, 2017ko otsailaren 18an izandako sutean egindako lan goresgarriarengatik; José Miguel Moreno Vázquez, bihotz-biriketako geldialdia izandako herritar bat bizkortzean erakutsitako izpiritu zibiko eta humanitarioarengatik, Dorrao-Torranon; Fernando de Diego García, desordena publikoengatik ondoren atxilotua izandako gizona menderatzen erakutsitako egiten jakite eta lankidetzaren adibide baliotsuarengatik; Emilio Matalobos de la Iglesia eta Luis Armando Gutiérrez Laplana, CASESA enpresako segurtasun-zaindariak, zentro batean nahitaez sartzeko eskaera zuen pertsona aurkitzen eta geldiarazten laguntzeagatik; Nafarroako Su-hiltzaileen Zerbitzuko Uretako Erreskate Taldea, Ikerketa Kriminaleko Arloarekin zerikusia duten zerbitzuetan lan estua egiteagatik; Melchor Crespo Serrano Foruzainaren familia, iaz 49 urte zituela hila; eta izena ezkutuan gorde nahiago duen gazte bat, barruan 7.000 euro zituen galdutako motxila bat entregatzearengatik, langabezia-txartela zigilatzetik irten zenean aurkitua, herritar bezala eredu ona erakutsiaz.

Halaber, 14 zorion publiko banatu zaizkie Foruzaingoaren zerbitzuan agente ezberdinek erakutsitako meritu profesional ezberdinenengatik.